



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

Bertsolaritza, Nafarroako Kultur Intereseko Ondasun

Iazko urtearen hondarrean eman zen izendapenaren berri, eta laster, ikasturtea amaitzerako, gauzatuko da. Ondare materiagabeen, Nafarroak onartuko duen seigarren Kultur Intereseko Ondasun izendapena izango da bertsolaritzarena.

2011ko martxoaren 25ean Nafarroako Parlamentuak Gobernuari bertsolaritza Kultur Intereseko Ondasun izendatzeko prozesua has zezan eskatu zion, ondare materiagabe gisa. Orduko testuinguruan batere ohikoa ez zena gertatu zen gai honen inguruan, mozioa aho batez onartu baitzuten talde guztiek. 2005ean Nafarroak indarrean jarri zuen Kultur Ondarearen legea zegoen izendapen eskaera horren muinean.

Orduz geroztik, luze jo du eta gorabeheratsua izan da bertsolaritza Nafarroako Kultur Intereseko Ondasun izendatzeko prozesua. Gaia hainbat urtez izoztuta izan ondoren, 2016an berriro heltzea erabaki zuen Nafarroako Bertsozale Elkarteak. Nafarroako Gobernuako Kultura Departamenduarekin harremanetan jarri eta bi aldeek izendapen prozesua berraktibatzeke aukera ikusi zuten.

Horiek horrela, 2017ko hasieran Nafarroako Bertsozale Elkarteak izendapenerako eskaera ofiziala egin zuen. Horretarako, bertsolaritzak herrialdean izan duen eta duen presentzia eta garrantzia biltzen zituen txosten xehea aurkeztu zuten. Bertan, besteak beste, bertsolaritzaren alderdi historiko eta etnografikoak, errotze maila eta komunitatearen parte-hartzea, bilakaera eta transmisio lana bildu zituen Elkarteak.

Kultur Intereseko Izendapenerako espedientea Nafarroako Ondare Immaterialaren Artxiboko zuzendari tekniko eta NUPeko irakaslea den Alfredo Asiain etnolinguistaren beste txosten batek osatu zuen.

Babes mailarik gorena

Dokumentazio hori guztia aztertu ondoren, iazko irailean Nafarroako

Gobernuak bertsolaritza Nafarroako Kultur Intereseko Ondasun izendatuko zuela jakinarazi zuen, horretarako behar diren baldintza guztiak betetzen baititu.

Gobernuaren arabera "Nafarroan ongien gorde den eta azpimarragarriena den errepentismoa" da bertsolaritza. Horrez gain, izendapenaren bitartez, bertsolaritza babestu nahi du, besteak beste, "fosilizazioa, autonomia galera eta lehiaketa eta ikuskizun testuinguruen gehiegizko nagusitasuna" saihesteko.

Ondare Materiagabearen arloan Nafarroak onartuko duen seigarren Kultur Intereseko Ondasun izendapena izango da bertsolaritzarena. Aurretik Lantzeko inauteriek, Ituren eta Zubietako inauteriek, Hiru Behien Zergak, Luzaideko Bolantek eta Cortesko makil dantzak jaso dute herrialdean ondare materiagabeak izan dezakeen babes mailarik gorena.



Bertsolaritzak duen errotze maila nabarmendu zuen txostenak. //XDZ



JOKIN
BERGARA EGUREN

Ondarra, 2018-V-12

Plazatik Gaztetxera sariketako irabazlea

Doinua: Hil da Canovas fuera Canovas I

Lehendabiziko besarkada bat etorri zaretenentzat
Eibarko peña, ezagunak ta kuadrilako guztientzat
txapela hau doa txapelikan ez dagoen txapelketentzat
egia esan gogoia daukat handia denez niretzat
bertso mundutxo honetan gehio jarraitzeko behintzat.

Ikasturtea amaitzear, udalekuak hastear

Ekainarekin batera, ikasturte amaierara iristen ari gara. Urtero bezala, ikastetxeetan eta bertso-eskoletan jaialdiak egiten ari dira azken asteotan. Bertsozaritza ikastetxean egitasmoak, bertso-eskolek, Ahalduntze Bertso-eskolak eta Zilekoa ekimenak atsedean hartuko dute udan, baina Bertso Udalekuek hartuko dute horien lekukoa.

32. urtez Bertsozale Elkartea hezkuntza arautuan egon da lanean Euskal Herri osoko ikastetxe publiko, kristau eskola zein ikastoletan. Osotara, amaitzen ari den ikasturtean 507 ikastetxetan landu dute bertsozaritzaren transmisio proiektua, ikastorduen barruan. Hain zuzen ere, 26.300 ikasle izan dira 2017-2018 ikasturtean bertsozaritza ikastetxean landu dutenak. Zeregin horretan, elkarteko 47 irakasle aritu dira lanean.

Ikastetxeetan bezala, bertso-eskolek ere amaituko dute ikasturtea. 123 herritan izan dira azken hilabeteotan martxan, eta gaztetxoek zein helduek osatutako 237 talde aritu dira astetik atera bertsozaritza lantzen. 1.508 ikaslerekin abiatu zuten iazko udazkena bertso-eskolek.

Ahalduntze eta Zilekoa

Horiez gain, bestelako ekimenek ere atsedena hartuko dute uda partean: esate baterako, aurtengoan hirugarren edizioa izan duen Ahalduntze Bertso-eskolak.

Bertan hamabost bertsozaririk hartu dute parte, Ainhoa Aranburu eta Arkaitz Goikoetxearen gidaritzapean. Hileroko maiztasunez bederatzai saio egin dituzte eta hilaren 16an emanen diote amaiera denboraldiari. Nolanahi ere, hurrengo ikasturtean ere segida izanen du ekimenak, eta irailean zabalduko dituzte horren gaineko informazioa zein izena emateko epea.

Udan oporrak hartuko dituen beste ekimena Zilekoa da, Bizkaiko bertsozaritzaren inguruko emakume gazteen topaketak. Ikasturte hasieratik Oihana Bartra eta Miren Amuriza bertsozaritza gidaritzapean egin dituzte saioak. Besteak beste, Maite Berriozabal gai-jartzailearekin saio bat egin dute edota Lekore eta Txakur Gorria taldeen esperientziak ezagutzeko aukera izan dute azken hilabeteotan. Kasu honetan ere, hilaren 16an amaituko dute ikasturtea, *Erradikalak Gara* ikuskizunarekin.

Udan, udalekuak

Ikasturtea amaitzen denean, Bertso Udalekuek hartuko dute lekukoa. Martxoan zabaldu zen horietan izena emateko epea eta bertso-eskolako kideek edota gurasoren bat Bertsozale Elkarteko bazkide dutenek izan zuten lehentasuna. Ohi bezala, harrera ezin hobea izan du proposamen beteranoak: aurtengoan 9 eta 18 urte bitarteko 240 gaztetxok eman dute izena. Horiekin batera 44 hezitzaile arituko dira dena ongi atera dadin lanean: 30 begirale, 8 sukaldari eta 6 zuzendari.

Bost dira uda honetan Bertso Udalekuek izango dituzten txandak: Orio, Irañeta, Muxika, Idauze-Mendi eta Zuhatza.



240 gaztetxok hartuko dute parte Bertso Udalekuetan. //XDZ

Aldi berri bat irudikatzeko **tenorea**

Datozen urteetarako Bertsozale Elkarteen helburu estrategikoak zehazteko gogoeta prozesua abiatzera goaz. Ekainean, irailean eta azaroan gauzatuko da. Bazkide guztiok gaude gonbidatuta. **Asmoa: elkarrekin elkarteen etorkizuna irudikatzea**



2006an egin zuen Bertsozale Elkartek aurreko gogoeta. //XDZ

Hogeita hamar urteko ibilbide aberasgarria egina du jada bertsolaritzaren mugimenduak. 2006. urtean egin zen elkarteen norabideaz hausnartzeko azkeneko geldialdia. Orduan finkatutako helburuak beteta, berriro pausatu eta elkarrekin etorkizuna ilusioz irudikatzeko unea iritsi da.

Hiru pausotan banatutako prozesua litzateke.

1. Gauzatu berri dugun **bertsozaletasunari buruzko ikerketa soziologikoaren emaitzen AURKEZPENA** egingo da ekainean. Aurkezpen bera bost egun eta tokitan egingo da, bazkideok egokien datorkigunera gerturatu ahal izateko. Ekainaren 14an, Iruñean; ekainaren 20an Amasa-Villabonan; ekainaren 21ean Durangon; ekainaren 27an Gasteizen; eta ekainaren 28an Senperen izango dira hitzorduak, 18:00etan.

Aurkezpenak ordubetekoak izango dira eta ondoren galderak egiteko eta gaiari buruz solasteko parada eskainiko da. Aurkezpenetan jasotako informazioarekin **gogoetarako gai-zerrenda** bat aterako da.

Interesgarria izango da ikertzaileek egindako azterketari buruz egin duten analisia entzutea. Bazkide guztiok gaude gonbidatuta eta parte hartzeko izena eman behar da. Horretarako nahikoa da www.bertsozale.eus webgunean horretarako propio sortutako formularioa betetzea edo **+34 943694129** telefono zenbakira deitzea.

2. Uda ostean izango da bigarren hitzordua, irailaren 22an. Hartu aintzat data hau ere zuon agendatan. **Ekaineko aurkezpenetan lehenetsitako gaiak elkarteen ildo estrategikoetan kokatu eta horien inguruko TAILERRAK antolatuko dira:** transmisioa, sustapena, ikerkuntza, oinarri filosofikoak... Talde txikitan aipaturiko gaien inguruan solastu, horiei buruzko iritziak bildu eta azaroan egingo den gogoetaldirako oinarri izango den dokumentua osatzea da helburua.

3. Azaroan **datozen urteetarako helburu orokorrak finkatzeko GOGOETA** egingo dugu. Azaroaren 10-11 asteburuan izango da. Begirada etorkizunera luzatu eta 10 urteren buruan elkartea non egotea nahi genukeen irudikatzea da ideia. Etorkizunean elkarrekin egingo dugun bidea denon artean erabakitzea da asmoa.

Behin norabidea zehaztuta, elkarteen egiturak eta funtzionatzeko moduak helburu estrategikoetara doituko ditugu.

Egunerokotik begirada altxa eta etorkizunera luzatzeko unea da. Aukera paregabea. Bertsolaritzaren mugimenduari buruzko kezkarik edo intuiziorik izanez gero ez zalantzarik izan, har ezazu parte!



Puntu jarrita

SAIOA ALKAIZA GUALLAR

"Benetan izan nahi dut bertsolari?" galdera bota duzu, Josu Sanjurjo, zure esanetan inoiz ez baituzu egin "benetako bertsolari bat izateko behar den lanketa". "Bidegurutz" batean zaudela ohartu zara, erabaki egin behar duzula zer egin nahiko zenukeen. Dena dela, ezagutzen zaitugunok badakigu aspalditik izan bazarela bertsolaria, moldatuko zarela beti bertsoaren moldeetara egokitzen; are, saiatzen ari zarela arrakalak bilatzen eta zer egin nahi duzun erabakitzen, era kontzienteago batean, estilo propioa bilatzen eta, batez ere, hausnartzen hainbeste gozamen ekartzen digun jardun honi eskain diezaiokezun horri buruz. Lekukoa niri pasa didazu, antzeko egoeran egon naitekeelakoan eta bete-betea asmatu duzu.

Gaztetan hasi nintzen bertsoan: eskolako klaseak, aurrena; gero, bertso-eskola; ostean, eskolartekoak eta gazte sariketak; eta, azkenean... Azkenean, txapelketa eta horrek guztiak dakarrena. Asko pentsatu gabeko bideak izan ziren hasierako horiek, bata bestearen atzean etorri zirenak, eta, orain, ni ere banago une horretan: zertarako ari naizen eta zer egin nahi nukeen deszifratu nahiko nukeen momentuan.

"A, zu bertsolaria zara!", esan izan didate, ordu txikitik. Erantzuna: "Bueno, saiatzen naiz" edo, bestela: "Bai, beno, gustatzen zait". Bertsolari esate hutsak beldurtu izan nau askotan eta arrotza zait izendapena. Bertsolari izatea zer da, baina? Plazan kantatzen duena da bertsolaria? Idatzizko bertso bikainak sortzen dituen? Edota hain bikainak ez direla jakinda ere, lagunari bertsoak idatzen dizkiona urtebetetze egunean?

Agian, gakoa izan daiteke ulertzea bertsolari izateko forma asko daudela, edozein momentuan edozeri buruz kantatuko lukeen arketipo horretaz harago; eta gu, bai, noski, bertsolariak garela. Buruan darabillikidan zalantza hauxe da: Bertsolaria bai, baina zein bertsolari mota izan nahi dut, zertarako eta zer esateko? Eta zer egin nahiko nukeen horretara iristeko?

Galderak, sobran; eta erantzunak, faltan. Irati Majuelo, lagunduko al didazu zalantzak argitzen?

Koplak

Hogeigarren Bapatean, bidean

1988. egin zuen Xenpelar Dokumentazio Zentroak lehen Bapatean bilduma eta orduz geroztik ez dio bere urteroko hitzorduari huts egin, paperean 2009ra arte eta CDan geroztik. Aurtengo bilduma prest da eta Bertsozale Elkarteke bazkideek datozen asteotan jasoko duzue etxean.

Poto-Finixa



Bertsoaren mekanika

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Udazkenaren zain

Bizkaiko Bertsolari Txapelketak udabarriko fasea amaitu zuen iragan maiatzaren 26an, Abadiñon. Bi hilabetez hamahiru saio jokatu dira, 78 parte-hartzaileekin. Horietatik 29k lortu dute udazkeneko faserako sailkatzea. 30 bertsolariarekin hasiko da fase hori, horiei 2014ko finalistetako bat ere gehituko baitzaie.

**BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIKO
LIBURUA**

salgai!

www.lanku.eus

PUBLIZITATEA